


Rap erritmoak eta bertsolarien errimak Kosmodisearen amaierako festan

Kursaal jauregian egin zen, beste urte batez, Kosmodisearen zazpigarren edizioaren amaierako festa handia. Kosmodisea ekimena Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko departamentuak sustatzen du eta espiritu ekintzailea unibertsitateaz kanpoko Gipuzkoako hezkuntza-esparruan bultzatzea du xede.



Neska-mutikoez eta gaztetxoez zein euren irakasleek urte luzez gogoratuko dute maiatzaren 10eko ostiraleko goiza, elkarrekin izan baitziren rap erritmoak, bertsolarien errimak eta baita tangoari erreferentziak koreografia ausart batean uztartu zituen ikuskizun bikainean.

Oroitzapen hau, jakina, are eta biziagoa izango da Kosmodiseako bost kategorien arteko batean aitortpena izan zuten 15 taldeentzat. 2012-2013 edizioan parte hartu zuten 181 taldeen artean, 15 talde saritu zituzten eta ekitaldian bertan jakinarazi ziren irabazleen izenak.

Kopuruak esanguratsuak izan ziren berriz ere: 29 ikastetxeri zegozkien 181 taldeetan 1.423 parte-hartzaile izan ziren; horietatik 1.355 ikasleak ziren eta 68 irakasleak. Guztiek taldekako jolas batean parte hartu zuten, Gipuzkoako ikasleen artean ekimenaren helburua indartzeaz batera, ikasleei ekimenaren helburuari zuzenean lotutako hainbat balore transmititzea xede zuena. Balore horien artean daude, besteak beste, alde zuzenetik lan-kidetzarako jarrera izatea, autoestimua, aldaketetara egokitzea, autodiziplina, ahalegina, berrikuntzarekiko interesa edo akatsen aurreko tolerantzia.



Talde guztiek izan zuten zegokien aitortpena, baina unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-esparruari zuzendutako eta [Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako](#), [Landa Garapeneko](#) eta [Turismoko departamentuak](#) IKTak (informazioaren eta komunikazioaren teknologiak)

intentsiboki erabiliz ekimenaren zentzua bultzatzeko helburuarekin sustatutako ekimen honetan (Europako Funts Sozialarekin –“Europako Funts Sozialak zure etorkizunean inbertitzen du”– % 50ean finantzatua), aipamen berezia egin zitzaizen 15 talderi. Honako ikastetxeetako taldeak dira horiek: [Elgoibar Ikastolako](#) lau lan saritu ziren; [La Salle Berrozpek](#) hiru aitortpen jaso zituen; [Axular Lizeoaren](#) bi lanek saria jaso zuten, eta baita [Aita Larramendiko](#) eta [Hernani BHIko](#) bina lanek ere, eta [Orokietako Herri Eskolako](#) eta [San Benito Ikastolako](#) lan bana aitortu zen.

[Kosmodisearen](#) zazpigarren edizioak teknologia berriekiko lotura areagotu du. Lehiaketa garatu den hilabeteetan zehar eta baita amaierako festa handian ere, interes eta parte-hartze handia erakutsi zuten ikasleek, Kurtsaal jauregia betetzeraino. Amaierako gala zuzenean eman zen “streaming” bidez, Kosmodisearen web orritik, eta galaren jarraipena agerian geratu zen “zer da zuretzat ekintzaile bat?” eta “Zer da zuretzat Kosmodisea?” galderi neska-mutilek Twitter saretik emandako erantzunetan.

Hauek dira erantzun esanguratsuenak: “Ideia berriak eman eta lan handia egiten duena”; “Ideia berriak sortu eta irudimen handia izatea”; “Posible da guztion artean mundu hobea egitea”; “Ez nago mundu honekin konforme, aldatu egin nahi dut”; “Emaizta desberdinak lortu nahi badituzu, ez egin beti gauza bera”; “Ahaleginduz gero, guztia lor daiteke”; “Ekiteko arrazoi onena, mundua leku hobea bilakatuko duen produktua edo zerbitzua sortzea da”; “Goiz izugarria, sekulako giroa”; “Emaizta ugari lortzea, eta horretarako, lan handia egin behar da”; “Bidaia luzeena urrats bakar batekin hasten da”; “Ideiak izatea: gaurko ekintzak biharko emaitzak dira”; “Kosmodisea zinez dibertigarria da, berriz ere parte hartu nahi dut”; “Ez egitea baino hobea da gaizki egitea”; “Irabazi ez dugun arren, sari onena taldean lan egitea izan da”.



Jon Peli Uriguen diputatuak ere bat egin zuen festarekin eta ekintzaile baten profilaren bi ezaugarri garrantzitsuenak azpimarratu zituen emandako hitzaldi laburrean: taldean lan egitea eta aniztasuna.

Honako hauek dira Kosmodisea 2012-2013 edizioko bost kategorietako talde irabazleak:

Lehen Hezkuntza 1 (Neo)

1. Kosmolariak (Axular lizeoa) elkarrizketa irakurri
2. Kosmojakintsu txikiak (Axular lizeoa) elkarrizketa irakurri
3. Ausartak3C (Elgoibar ikastola) elkarrizketa irakurri



Lehen Hezkuntza 2 (Fisio)

1. Bostekoak (Elgoibar ikastola) elkarrizketa irakurri
2. Bostak Kosmoan (Elgoibar ikastola) elkarrizketa irakurri
3. Palkak (Orokietan herri eskola) elkarrizketa irakurri



Bigarren Hezkuntza (Glos)

1. Zimaik (Aita Larramendi ikastola) elkarrizketa irakurri
2. Kosmopantxika (Elgoibar ikastola) elkarrizketa irakurri
3. Xerpak (San Benito ikastola) elkarrizketa irakurri



Batxilergoa (Logo)

1. Izpi Beltzak (Ies Hernani) elkarrizketa irakurri
2. Xamasa (Aita Larramendi ikastola) elkarrizketa irakurri
3. Erantzun zati bat (Ies Hernani) elkarrizketa irakurri



Heziketa-zikloak (Tekhne)

- 1º Jabalina (La Salle Berrozpe) elkarrizketa irakurri
- 2º Problem (La Salle Berrozpe) elkarrizketa irakurri
- 3º Belarbolak motorsport (La Salle Berrozpe) elkarrizketa irakurri



KOSMODISEA 2013-2014 edizioan parte hartzeko izen-ematea irekia dago:

www.kosmodisea.net

info@kosmodisea.net

Tel.: 900 840 842